

OROZKO / Euskal mitologiaren jardunaldiak antolatu ditu udalak umeentzat

Abenduaren 5era Arte Liburu Erakusketa, Ipuin Kontalariak, Puzgarriak Eta Beste Ekitaldi Batzuk Egingo Dira

Liburutegiaren erabilera sustatzeko jardunaldiak antolatu ditu Orozkoko Udalaren Kultura Sailak bigarren aldiz. 2011n ardatza inguruko flora eta fauna izan baziren, aurten euskal mitologiak hartuko du leku nagusia.

Hamar egunean zehar euskal mitologiako pertsonaiak era dibertigarri eta atseginean ezagutzeko aukera egongo da. Adin guztietakoentzako liburu erakusketa, ipuin kontalaria, ludoteka eta puzgarri mitologiak dira, besteak beste, jardunaldion osagarriak.

Hala ba, liburu erakusketa liburutegian egongo da ikusgai abenduaren 5era arte. Puzgarriak eta ludoteka, berriz, txikienentzako arreta osoa erakarriko dute abenduaren 1ean, Zubiaur plazan, 11:00etatik 14:00etara. Ekitaldi hau 6 urtetik beherako umeentzat da.

Abenduaren 2an, ipuin kontalariak kontu kontari jardungo du Donibane aretoan, 17:30etik aurrera, 12 urtetik beherako umeentzat.

Eta horren guztiaren osagarri, Gaztetxokon hozkailuko imanen tailerra egingo dute.

El ayuntamiento organiza unas jornadas infantiles sobre mitología vasca

Exposición de libros, cuenta cuentos o hinchables serán algunas de las actividades programadas hasta el día 5 de diciembre.

El Consistorio de Orozko, desde el área de cultura, ha programado la segunda edición de las jornadas de fomento del uso de la biblioteca. Este año la temática de la mitología vasca pasa a sustituir a la de fauna y flora del entorno que abanderó las jornadas del 2011.

A lo largo de diez días se enseñarán los personajes mitológicos vascos, siempre desde una óptica lúdica y divertida. Una exposición de libros para todas las edades, un cuenta cuentos, una ludoteca e incluso hinchables mitológicos, componen el amplio abanico de actividades de estas jornadas.

Así las cosas, la muestra de libros se podrá disfrutar en la biblioteca hasta el día 5 de diciembre. Por su parte los hinchables y la ludoteca acapararán la atención de los pequeños el 1 de diciembre en la plaza Zubiaur desde las 11:00 horas hasta las 14:00 horas. Estas actividades se encuentran dirigidas a niños menores de seis años.

El día 2 de diciembre, la sala Donibane acogerá una sesión de cuenta cuentos a las 17:30 horas, para los menores de 12 de años.

Un taller de imanes de frigorífico con figuras mitológicas realizado en el Gaztetxoko, completa el programa de las jornadas.